



Amaitu dira koplak

Iritsi da egun haundia: bihar jokatu da Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala, Iruñeko Nafarroa Arenan, goizeko 11:00etan hasita. Zortzi bertsolari izango dira oholtzan, eta 13.000 bertsozale harmailak betetzen.

URUMEA BERTSOLARITZA

Kostata, urte bateko atzerape-narekin, baina iristear da Bertsolari Txapelketa Nagusiko final haundia. Berritasun ugari izango ditu aurtengo finalak; eszenatokitik hasi eta partehar-tzaileetaraino. 13.000 lagun inguru bilduko dira Iruñean, Nafarroa Arenan, bertso munduko ekitaldi ospetsuenaz goatzera. Irailaren 24an abiatu zen txapelketa, Getxon, eta bihar boro-bilduko dute hilabete hauetako lana, Nafarroako hiriburuan.

Zortzi protagonista izango dira aurtengoan ere oholtzan, baina guztietatik batek bakarrik zekien hasieratik bertan abestuko zuela. Bihar egingo du lehen agerraldia Maialen Lujanbio hernaniarrak, egungo txapeldunak, 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusian. Zazpiga-

rreren finala izango du jarraian, 25 urtetako ibilbidea du Euskal Herriko finaletan, eta ekitaldiak izan duen bilakaeraren lekuko zuzenetako bat da. Bi txapel ditu dagoeneko Lujanbiok, eta, hirugarrena lortuko balu, Manuel Olaizola *Uztapide* bertsolariaren marka berdinduko luke.

Finalaurrekoetan egindako lan onaren ondorioz sartu dira gainontzekoak final haundira. Guztietan lehena Alaia Martin oiartzuarra izan da, 1405,5 puntu eskuratuta. Lehen aldiz sailkatu da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera, ibilbide borobila osatuta; izan ere, jokatu dituen fase guztietan lortu du puntuazio altuena: lehen fasean 738 puntu lortu zituen, finalaurrekoetako lehen itzulian 729,5, eta bigarren itzulian 676. Beraz, finaleko hasiberrietako bat den arren, pauso irmoarekin iritsi

da amaierara.

Aitor Mendiluze da, puntuazioaren arabera, bigarren sailkatua. Durangon egindako lan onarekin, 726 puntu lortuta, bideratu zuen Iruñerako bidea. Maila altua erakutsi du andoaindarrak, ariketa ederrak osatu eta sendotasuna erakutsita. Zazpigarrenez ari da Euskal Herriko txapelketan, eta seigarren finala izango du aurtengo. 2017an buruz burukora sailkatzea lortu zuen, eta ikus-teko dago ea aurtengaindi deza-keen aurreko edizioan jarritako langa. Seigarren aldia izango du finalean Sustrai Colina urruñarrak ere. Partehartze adina final ditu Colinak, eta ale ederrak utzita iritsi da Iruñera. Buruz burukoan sartzeko borrokan ibili zen 2017an, hirugarren postuan geratu zen, eta orain arteko lanarekin erakutsi du irabazteko hautagaietako bat dela.

Laugarren eta bosgarren eserlekuak jadanik ohikoak diren bi bertsolarik okupatuko dituzte, Beñat Gaztelumendik eta Amets Arzallusek. Añorgarrak finalaurrekoetako lehen itzulian, 716 puntu lortuta, hasi zuen

finalerako bidea. Txapelketa Nagusiko finalaurrekoetan sekula ez zuen halako puntuazio alturik lortu, eta hirugarren finala izango du biharkoa. Hendaia-rrak, aldiz, urduritasun gehiago pasa behar izan ditu aurtengo finalera sailkatzeko. Lehenengo saioa ez zitzaion nahi bezain ona irten, eta bigarren itzulian jo zuen kolpea, Bilbon. Bi saioen batuketara eginda, 1350 punturekin, ez da ate ondoan geratu 2013ko txapelduna.

Azken bi aulkiak bi aurpegi berrientzat izango dira. Alde-rantzizko bidea egin dute biek finalaurrekoetan. Alde batetik, Nerea Ibarzabalek aukera gutxi ikusten zituen Irungo saio ospetsuaren ostean, 673 punturekin urrun zuelako finala. Hala ere, gerrarako deia entzunda, saio borobila osatu zuen Baionan, eta Bizkaiko txapeldunak lortu du Euskal Herriko finala jokatzeke sarrera. Bestetik, gehiago izerditu zuen Joanes Illarregik bigarren itzulian. Puntu sorta txukuna lortu zuen Elizondon, saio ikusgarri bat osatuta, baina kosta egin zitzaion aldeak mantentzea. Kontuak kontu,

Qatarrera ez, baina Iruñera bai joango dela leitzarra. Finalera sartu da bere lehen Bertsolari Txapelketa Nagusian.

Ariketei dagokienez, aitzakiek ez dute tarterik izango, mota guztietako lanak egin behar-baitituzte guztiek. Goizean 15 bertso puntuagarri abestuko ditu finalista bakoitzak; bazkalostean, gehienek, 10 bertso puntuagarri abestuko dituzte, eta hor amaituko da lana zortzi bertsolarietatik seirentzat; amaitzeko, puntuazio altuena duten bi bertsolarien artean jokatu da buruz burukoa: 10 bertso puntuagarri osatu beharko dituzte, eta, aurtengoan, zortziko txikiko eta ganbarako ariketez gain, Iparragirre doinuaren osatutako ofizioa itzuliko da buruz burukora, 21 urteren ondoren.

Egunaren amaieran jakingo da nork jasoko duen txapel beltza Iñaki Muruaren eskuetatik. Ordura arte, gozatzea besterik ez da geratzen. Orain artekoak utzi ditu ale gogoangarriak, eta sekulako maila erakutsi dute bertsolariek, baina finala beste kontu bat da; amaitu dira koplak, eta has dadila festa. **k**

«Zorionez, plazan sortu diren aldaketak ari dira txapelketan ikusten eta eragiten»

Euskal Herriko Txapelketaren barrunbeak ezagutu ditu aurtengo edizioan Oier Iurramendik. Bertsolari Txapelketa Nagusiko koordinatzaile lanetan aritu da buru-belarri, eta bi urteko prestaketaren ostean, orain artekoa borobiltzeko eguna dute biharkoa, Iruñean.

HERNANI OIER IURRAMENDI

Txapelketa barrutik bizitzea egokitu zaio Oier Iurramendi hernaniarrari. Bertsozale Elkarteko sustapen eragilea da, eta Txapelketa Nagusiko koordinatzaile lanetan aritu da. Dena puntuan dute biharko egun haundirako, baina lan ugari egin behar izan dute aurretik. Orain artekoarekin pozik agertu da Iurramendi, eta Iruñean guztia borobiltzeko gogotsu dago.

Pixkanaka iristen ari da txapelketa bukaerara, gogoak duzu amaitzeko?

Uste dut eskertuko dudala bukatzea, denbora asko daramagulako txapelketa antolatzen. Hala ere, bi aldeak dauzka; gus-toa ere hartzen diozu, azkeneko hiru hilabeteetan ez dugu beste ezer eduki buruan, eta pentsatu izan dut hau bukatzen denean ea zer egingo dugun asteburuetan. Bukatzeko gogoak hor daude, baina orain artekoarekin oso gustora nago. Beraz, bai eta ez. Hortxe utziko dugu.

Irailaren 24ean hasi zen bertsolarien ibilbidea, Getxon. Zuretzat noiz hasi zen txapelketa?

Puf, ba pentsatu txapelketa hau berez BTN21 izatekoa zela. Pandemiaren ondorioz urtebete atzeratu behar izan genuen, eta erabaki hori hartzerako lan batzuk aurreratuak geneuzkan. Txapelketa prestatzen orain dela bi urte hasiko ginen, saioak egiteko herri asko lotuta zeuden, eta lehenengo pauso eta oinarriak finkatuta. Ekainaren 23an aurkeztu genuen, Bilbon, eta hortik aurrera ezagutzen du txapelketaren ibilbidea



Bertsolari Txapelketa Nagusia beste modu batera bizitzea egokitu zaio Oier Iurramendiri aurtun, barrutik.

jendeak, baina, elkarreak, bi urte lehenagotik gutxienez.

Zeintzuk dira herriak aukeratzeko irizpideak?

Galdera dezente egiten dira gai honi buruz, eta erantzuna ez da hain erromantikoa. Herrialde bakoitzeko elkarrearekin adostuta egiten da aukeraketa. Kontutan hartzen da, batez ere, herrialdeetako txapelketetan non egin diren saioak, ez gehiegi errepikatzeko. Finean, elkarrearen helburua ere badelako Euskal Herri osoan eragitea. Horrez gain, muga nagusi bat dago: azpiegiturak. Txapelketaren fase bakoitzean eremu egokiak bilatu behar dira; adibidez, lehenengo fasea aretoetan egitea hautuatu genuen, eta hori egin ahal izateko areto egokiak topatu behar dira, aforo zehatz batekin, bertsolariantzat erosoak direnak, ganbara egitea ahalbidetzen dutenak... Horrek, noski, mugatzen du herrien aukeraketa. Eremuei ere erreparatzen zaie, herri eta inguru zehatzetako bertso mugimenduei indarra emateko.

Erromantizismoa eta praktikotasuna uztartzen dituzue...

Bai, hori da (barrez). Logika ere

bada. Urte askotan errepikatu diren eremuei deskantsatzeko tartea eman, eta eremu berrietara iristeko.

Pieza berri asko izan ditu aurtengo talde antolatzaileak? Taldea zentzu askotan berri-tu da. Nire kasuan, esaterako, lehenengo urtea da antolatzaile gisa, eta badira batzuk nire egoeran daudenak. Aurtengo

«Finalaren kokalekua Nafarroa Arenara aldatzea izan da aurtengo erronketako bat. Antolakuntza eta ekoizpen lan ikaragarria eman digu mugimenduak, baina aldaketarekin seguru eta pozik gaude»

taldean nahastu gara esperientzia dutenak, lauzpabost txapelketa egin dituztenak, eta berriagoak. Esan dezakegu transmisio urtea izan dela. Bestetik, egitura ere berritu dugu txapelketa

prestatzeko; azpitalde berri bat gehitu dugu, bertsogintza taldea, eta horrekin garrantzia eman nahi izan diogu ohol-tza gainean gertatzen denari, parte artistikoari.

Lehenago talde berak eramaten zuen azpiegituren eta zati artistikoaren ardura, eta gabeziak antzeman genituen atal batzuetan. Horregatik, ohol-tza gaineko atalari eman nahi izan diogu behar zuen protagonismoa. Aldaketa hauek kontuan hartuta, orain arteko balorazioa oso ona da, azkenean, talde oso batek dedikazio totala eskaini diolako bertsolari, epaile, gai-jartzaile eta ekitaldiaren zaintzari.

Proposamen berritzaileekin hasi zineten segituan, kartzelatik ganbarara pasata. Azalpenak ere eman behar izan zenituen...

Bai (barrez), harrigarria izan zen, eh! Aldatu duguna izena izan da, ez egitura, ez izaera, ariketa bera ere ez dugu ukitu. Harrabotsa sortu zuen bertso munduan, eta horrek erakusten du gauzak aldatzeko batzuetan nolako zailtasunak dauden. Egia da aldaketak berak ez zuela eragin haundirik, arrazoiak ere

ez ziren beste mundukoak, iruditzen zitzaigun kartzela adierak ez zuela ordezkatzeko ariketa edo gune hori, eta ez zitzaigun, egungo ikuspegitik, izen egokiena iruditzen. Beraz, aldatzeko hautua egin genuen, eta, proposatutako izenen artean, ganbara iruditu zitzaigun aproposena. Aldaketa guztiek sor dezakete zalantza, egongo da jendea aldaketa ez duena, baina tira, ez diogu aparteko garrantzirik eman.

Aldaketa garrantzitsu bat, garrantzitsuena, finalaren agertokiaren aldaketa izan da.

Iruñera mugitzeko erabakia aspaldi hartu zen. Bertsozale Elkarreak argi dauka txapelketa-rekin Euskal Herri osoan zehar eragin nahi duela. Finalaren muga haundiena, zalantzarik gabe, azpiegiturarena da. Tamalez, Euskal Herrian ez dauzkagu azpiegitura gehiago halako baldintzak betetzen dituztenak. Gustora gaude erabakiak eman duenarekin, orain ikusiko dugu finalak berak zer ematen duen, baina hori izan da txapelketa honetako erronketako bat. Halako ekitaldi haundi bat lekuz aldatzeak ekoizpen lan ikaragarria ematen duelako: leku berria, baldintza berriak, arau

«Pisu eta ardura haundia da 13.000 lagun inguru elkartuko dituen ekitaldi bat antolatzea. Ustez, ongi egin ditugu etxekolanak, eta guztiok izango dugu bertsolaritzaz gozatzeko aukera»

administratibo berriak... Lan haundia da, baina aldaketarekin seguru eta pozik gaude.

Noiz hasi zen zuretzat finala? Bihar zein izango da zure egitekoa?
Bilboko azken finalaurrekoa pasata, bete-betean hasi zen niretzat finala. Txapelketa honetan koordinatzailearen ardura edukitu dut, eta, askotan, gehiago da pieza guztiek ondo funtzionatzea ezer praktikoa egitea baino. Txapelketan jende ugari egiten dugu lan, ardura eta funtzio pila bat daude, eta ezinezkoa da hori pertsona batek edo gutxi batzuek egitea. Orduan, aurtengoan gehiago izan da pieza guztiek ondo funtziona dezaten egitea, ezer konkretua egitea baino. Finalari lotuta, nire ardura oholtza gainean gertatzen dena zaintzea da, pieza asko mugitzen dira horren baitan: ordutegiak, bukaera orduak, bazkariaren ordutegia... Domino haundi bat da finala, eta guztia espero den moduan joan ahal izateko kontrola eraman behar da.

Ariketei dagokienez, zeharo ezberdinak izango dira goiza eta arratsaldea. Nola prestatzen da finala?
Ariketen aukeraketa duela urte bat egin genuen, baita ariketa bakoitzak zer traza edo kolore edukiko duen ere. Badakigu ariketa batzuk umorearekin lotzen direla; besteak, aldiz, dramarekin. Beraz, talde bat sortu zen atal hori lantzeko, aukeratu ziren egin beharreko ariketa guztiak, eta bakoitzaren oinarria edo irizpidea edo traza. Erabakiak hartzen direnean ezin da jakin zein den emango duen emaitza; orduan, egiten dira moldaketak gauza batzuen bila, baina beti ez dira nahi bezala ateratzen, edo nonbait arrisku bat ikusi eta gero praktikan ez da gertatzen.

Finalerdietako bigarren itzuliak, adibidez, berezitasun gisa izan du 10eko txikian hastearena, eta bazen gure beldurretako bat, orain arte neurri haundian hasi izan delako txapelketa. Iruditzen zitzaigun 10eko txikia

«Erredurak sortzea ez da seinale txarra. Beti dago zer hobetua, horregatik txapelketa guztien bukaeran egin behar da gogoeta prozesu bat, ikusteko zer den eman duena, eta, batez ere, zer ez duen utzi ematen»

bazela plazan asko erabiltzen den ariketa, eta moldaketa polita iruditzen zitzaigun. Egia da ekarri duela umorearen atala atzeratzea, baina tira, alde ona ikusi dionik ere bada, eta esango nuke, orokorrean, gustora gaudela emaitzarekin.

Ariketa bat kendu izanak ere ekarri du saioak 20 minutu laburragoak izatea, eta hori esker-tu duen bertsozalerik ere bada (barrez).

Txapelketa hasi aurretik aipatzen zen gazteak iristear zeudela, eta iritsi dira.
Bai, eta eskerrak iritsi diren. Bestela ez litzateke panorama txukuna izango. Hala ere, aurtengoan gehiago izan da pieza guztiek ondo funtziona dezaten egitea, ezer konkretua egitea baino. Finalari lotuta, nire ardura oholtza gainean gertatzen dena zaintzea da, pieza asko mugitzen dira horren baitan: ordutegiak, bukaera orduak, bazkariaren ordutegia... Domino haundi bat da finala, eta guztia espero den moduan joan ahal izateko kontrola eraman behar da.

Aurten, gainera, hiru emakumek abestuko dute finalean.
Bai, historikoa da, zalantzarik gabe. Azkenekoetan bakarra egon da, aurtengoan hiru egongo dira, eta oso berri ona da. Bestelako argazki bat utziko du finalak zentzu horretan.

Antolatzaileentzat nolako pisua da 13.000 pertsona inguru bilduko dituen ekitaldi bat prestatzea?
Pisu eta ardura haundia da. 13.000 lagun inguru elkartuko gara fisikoki han, eta telebistaz jarraitzen dutenen kopurua ere izugarria da. Hainbesteko irismena duen ekitaldi batek ardura haundia sortzen du. Dena ondo



Txapelketa ekainean aurkeztu zuten arren, bi urte lehenagotik dabil prestaketa lanetan Oier lurramendi, buru-belarri.

ateratzea nahi dugu egun horretan, eta dena ondo atera nahi horrek sortzen du presioa, baina gehiago da ondo egin nahietik, beste ezertatik baino. Guk daukagun entzule motak ere asko errazten ditu gauzak, bertsozaleak oso ondo portatzen dira saio guztietan. Jende asko da, baina ekitaldian, normalean, ez dugu inongo arazorik izaten.

Ustez, etxekolanak ongi egin ditugu, eta uste dugu emaitza ona izango dela. Guztiok izango dugu gozatzeko aukera.

Irakurketa orokorrak egiteko goiz xamar da, baina zein da orain artekoaz egiten duzun balorazioa?
Gure helburu nagusia da antolatzea bertsolaritza ulertzeko modu guztiek berdintasunezko lekua izango duten txapelketa bat, hori da daukagun oinarria. Txapelketak baditu osagai batzuk guk bilatzen ditugun ideiak betetzea mugatzen dutenak; lehia, esaterako. Bertso ekosistemako atal bat gehiago dela ulertzen dugu, alde on eta txarrekin, eta saiatzeko gara onak nabarmentzen eta txarrak leuntzen. Uste dut aurtengoan ikusi ditugula ahotz ezberdinak, ekarpen asko ikusi ditugu, bertsolari guztiak dira aberatsak eta denek dute beren entzule taldea. Ez dugu nahi txapelketa homogeneo bat, aniztasun hori erakutsi nahi dugu, txapelketan denentzako lekua izatea. Txapelketa honek parada eman du bertsoaren egiteko era ezberdinak entzun ahal izateko, eta, zentzu horretan, nahiko pozik gaude.

Txapelketan zehar egon da zerbait harritu zaituena?
Bai, noski. Ziurrenik pertsonalki harritu naiz gehien. Orain arte bertsozale modura jarraitu dut txapelketa, eta, orain, barrutik, oso jarrera ezberdinarekin zoaz

saioetara. Ordu asko daramatzazu saio hori irudikatzen edo izango denaren irudia egiten, eta horretarako aurrelanak egiten. Orduan, bizipenetatik oso desberdin jarraitu dut txapelketa, barruragotik bizitzeko aukera eman dit, baina, aldi berean, gozamezko alde bat ere galdu dut.

Irungo saioko puntuazioek harrabotsa sortu zuten bertso munduan. Kritika asko jaso dituzue?
Azkenean, zintzoak izanda, halako dimentsioa duen txapelketa batek erredurak sortuko ez balitu, ez litzateke seinale ona izango. Mugimendu hau sortzeak esan nahi du atzetik bada-goela mugitzen duen jendea, eta hori ere ona da. Bakoitzari duen garrantzia eman behar zaio, bertsozale bakoitzak gustatzen zaionaren alde egiten du, eta beti dago kritikak egiteko bide egokiak aurkitzen ez dituenak. Guk beti esaten dugu bertsolari batek oholtzan egiten duena oso segundu gutxitan sortzen duela, eta, azkenean, horri kritika egiten diogunean pentsatu behar dugula zeintzuk diren lan hori egiteko baldintzak. Horrelako mezuak zabaltzen saiatzeko gara antolakuntzatik. Hala ere, esango nuke bertsozalea oso errespetuzkoa dela, eta errespetatzen duela egiten den lana. Kritikak sekula ez dira txarrak, saltsa ere ematen diote txapelketari, baina jakin behar da zein ingurutan eta zein norabidetan egiten diren.

Orain arte ikusi dugunetik, zer uste duzu gogoratuko dela aurtengo txapelketaz?
Ez da galdera erraza aurretik erantzuteko. Uste dut orain artekoak utzi dituela bertsoaldi oso on batzuk, gehienak ganbarako lanetakoak. Puntukoak eta ofizioetako ariketa oso onak ere entzun ditugu. Txapelketek beti

uzten dituzte fase bakoitzean halako ariketa gogoangarri batzuk, eta honek ere utziko ditu. Finalak ere ziur utziko dituela, azkenean finala gehien ikusi eta entzuten den saioa izanik, beti daude horren inguruko komentarioak, ateraldi jakin bat egon delako, bertsolariak diskurtso jakin bat eman duelako, erantzun distiratsu bat egon delako... Beti egoten dira publikoarengandik hautatuak diren bertsoaldiak eta bertsoak, eta honek ere utziko ditu.

Zer dauka hobetzeko txapelketak? Hemendik lau urtera jarraitzeko asmotan zaude?
Txapelketak badu zer hobetua, eta txapelketa guztien bukaeran egin behar da gogoeta bat. Ikusi beharko dugu txapelketak zer eman duen, eta, batez ere, zer ez duen utzi ematen. Hor dauzkagu kezka haundienak, txapelketa nagusia lau urtean behin antolatzen den ekitaldi bat izanik, eta bertsolaritza asko aldatzen den mugimendua izanik, aldiro egin behar du egokitze lan bat. Txapelketa formatuz oso zaharra da, aldaketa txikiak egon dira, baina forma orokorra ez da aldatzen. Egia da agian ezin dela asko aldatu, baina uste dut buelta batzuk eman daitezkeela, egungo bertsolaritza ulertzeko modura egokitu egon dadin. Ahaleginak bide horretan egin beharko ditugu.

Hemendik lau urtera ez dakit non egongo naizen, espero dut leku berdinean egotea. Iruditzen zait urte oparoak datozela bertsolaritzarentzat eta txapelketarentzat. Pandemia ondorengo garaietan oso azkar ari da itzultzen bertsolaritza bere bidera, eta horrek esan nahi du oinarria osasuntsu dagoela. Espero dezagun txapelketa honek lagunduko duela datozen urteak hobeak izan daitezen. **k**

«Egin nahi dudanari ematen diot garrantzia, ez hainbeste horrek eman dezakeen emaitzari»

Zazpigarren Euskal Herriko finala izango da Maialen Lujanbiorentzat. Egungo txapelduna gogotsu dago Iruñean abesteko, baina ez du markarik buruan, barne exigentziak asetzea da oholtzara daraman helburua. Haunditasuna datorkio burura finalari buruz hitz egitean.

HERNANI MAIALEN LUJANBIO

Bost urteren ondoren, bihar ekingo dio Maialen Lujanbiok, zazpigarrenez, Bertsolari Txapelketa Nagusiari. Zuzenean sailkatu da finalera hernanira, eta orain arte txapelketako zurrunbilotik at mantendu nahi izan duen arren, bete-betean sartuko da bihar. Ez du inongo markarik buruan; bere buruarekin dituen borrokak eta autoexigentzia asebetetzeko asmotan iritsi da finalera.

Zer moduz zaude?

Zer sentsazioekin iritsi zara azken txanpara?

Ez da erraza esaten. Bertara joaten zaren arte ez zara konaturatzen benetan nola zauden; sutan jartzean probatzen da nola dagoen heltzea. Finaleko taldearekin oso pozik nago, eta ilusioa eragiten dit final horren parte izateak. Guretzat, azkenean, ederra da hainbeste urteren ondoren hor egotea, eta, aurten bereziki, gazte jendearekin, taldearen berritasunekin eta bi emakume gehiagorekin hor egotea niretzat suerte haundia da. Poztasunez bizi dut finala, eta espero dut aldarte horri eustea.

Txapelketa gertutik jarraitu duzu?

Bai eta ez. Hasieran oso zeharka eta urrutitik. Distantzia bilatu nahi izan nuen, buru-belarri sartzen bazara hasieratik zurrunbilo haundia delako. Hasieran zeharka begiratzen nion, pixkanaka aurrez aurre, eta azkeneko saioetan barrurago sartu naiz. Dena dela, urrundik begiratu nahi nion arren, inguruko jendea parte izan da, bertso eskolako jendea, lagunak, eta beti, nahi gabe bada ere, parte zara. Besteen pozen eta tristuren parte.

Zerk eman dizu atentzioa orain artekotik?

Zaila egiten zait ni parte izan gabe baloratzzea, eta ez zait tokatzen. Gauza asko egon dira, eta txapelketa ondoren izango dira hitz egiteko gaiak: bertsolarien

lana, tratatu den tematika, jendea, doinutegia... Gauza askotaz hitz egin daiteke, baina egokierak da gerora hitz egitea.

Zazpigarren finala izango duzu jarraian, 25 urteko ibilbidea da guztira. Badirudi erraza dela finalera sailkatzea.

Atzera begira inpresionatzen du gehiago. Nik ez diot inoiz nire buruari helburu gisa jarri finalaletan egotea, txapel kopuru jakin bat irabaztea, edo marka zehatzak lortzea. Nire bertso ibilbidean ibilian-ibilian gertatu da guztia, ez da aurrez diseinatutako ezer izan. Gure belaunaldiari tokatu zaio bizitzea, sortzea edo parte izatea garai berezi batean. 1997an, finalean lehenengo aldiz sartu nintzean, gazte belaunaldi baten baitan sartu nintzen: 21 urte nituen, gaztea nintzen, eta bazegoen katebegi galdu baten beldur moduko bat, bertsolaritzan. Xebastian Lizaso, Andoni Egafña eta Mikel Mendizabal egon ziren final hartan, eta beste guztiak nahiko gazteak ginen. Oso gazte sartu ginen, oso goiz, eta horrek azaltzen du nola egon garen hainbeste urtez hor. Esan bezala, hutsune bat betetzera sartu ginen, eta urte askotan jokatu dugu gazte rola. Orain da momentua gu helduenak edo zaharrenak garena, eta beste jende bat dago guk lehen betetzen genuen lekua betetzen.

Finala hitza entzun eta zer datorkizu gogora?

Haunditasuna. Saioaren dimentsioa izugarria da; fisikoki, daukan oihartzun mediatikoa, esangura, kultur mailan, hizkuntza mailan, politikoki... Oso potentzia da, ez da edozein larunbatetako edozein saio. Haundia den gauza bat da, eta haunditasun hortan guztia biderkatzen da: estuasuna, poztasuna, gaizki pasatzeko uneak eta tristura. Hala ere, haunditasun horren helburua ez da bonboa eta oihartzuna izatea, ez da hutsa. Ez da espektakuluaren parametrotan pentsatutako haunditasun bat, bertsogintza-ren, euskararen eta sorkuntza-



Zazpigarren txapelketa nagusia du Maialen Lujanbiok, eta bihar ekingo dio aurtengoari, final haundian bertan.

ren jardunaren sustapenean pentsatutako ekitaldia da.

Aurtengo finala aldatetekin dator. Zer moduzko argazkia ikusten duzu? Txapelketetako mugarri bat dela uste duzu?

Uste dut baietz, final guztiak izaten dira mugarri. Finalak hartzen dira lagin gisa garai

«Gure lanabesa hitza den heinean, etengabe aritu behar dugu kokatzen. Ez da erraza, zailagoa eta konplexuagoa da jendearekin bat egitea; baina, era berean, interesgarria da hori»

bat esplikatzeke. Nahiz eta bertsolaritzaren oinarria urtean zeharreko milaka saio horietan egon, txapelketa izaten da erretratu nagusia. Agian aurtengo da lehenengo urtea ikusten

dena belaunaldi berrien zantzu bat. Orain arte jende berria sartu izan da finalera, baina berri horiek ez ziren gu baino gazteagoak; aurtengoak berriak eta gazteak dira. Horrek ematen du belaunaldi gazte batek bere bidea egingo duenaren lehenengo pista, eta ikusten da bertsogintza espazioa hartuko duela.

Plazetan presentzia haundia daukate gazteek eta emakumeek. Gaur egungo bertso mugimenduaren multzo nagusietako bat dira, eta proposamen aldetik ere zeresana daukan jende asko dago. Aurtengo txapelketako erretratuak horri ematen dio ikusgarritasuna, eta eskaintzen du argazki bat bertsolaritza orain dela urte batzuetatik denarena. Garrantzitsua da, eta, zentzu horretan, beste urteetan baino mugarriagoa edo esanguratsuagoa da.

Zein aholku emango zenieke lehen aldia dutenei?

Egun horretan zaila da ondo pasatzea. Sekulako festa da, egun garrantzitsua da sozialki, politikoki, eta pertsonaetik askoz harago doan dimentsioa dauka. Norberak egin behar du lan propioa eta barnelana. Egun horren

parte sentitzeko eta, era berean, zentratuta egoteko; kanpo eta barruen arteko oreka bilatzeko. Hori da esan nezakeena, ea nik ere lortzen dudana.

Urduritzen zara halako egun baten atarian?

Bai, dudarik gabe. Saioetan ez hainbeste, saioaren arabera, baina estuasun puntua beti izaten da. Beti daukazu kezka jakiteko nola joango den. Bapatekotasuna nahiko gauza sorgina da, ezin duzu metodikoki prestatu egun zehatzetan ondo egoteko, inoiz ez duzu erabat jakingo nola egongo zaren, eta zer esanik ez halako egun baten aurrean; hainbeste jende, medio, eta hain inportantea den egun baten aurrean. Espero dut ibilbideak lagunduko didala aldar-teari eusten, baina han estuasuna pasako dut, dudarik gabe.

Zertan aritu zara orain arte? Nola entrenatu duzu?

Zaila da azaltzen. Bertso saioek jarraitzen dute txapelketak dirauen bitartean, eta horrek laguntzen dizu burua martxan mantentzen, baina ohiko bertso saioetako erregistroa eta txapelketakoa oso desberdinak dira.

«Nire helburua ez da hirugarren txapel bat irabaztea, ez da marka bat gainditzea edo txapelak pilatzea pilatzeagatik; nire buruarekin daukadan borrokari eta autoexigentziari erantzun nahi diet»

Beste entrenamendu batzuk ere egiten ditugu, eta, horretarako, bakoitzak bere modua asmatzen du. Oso gauza intuitiboa da, ez dago arautua, eta hori asko gus-tatzen zait. Bertsoa ez da hiruko erregela bat, ez da matematika, beste gauza bat da. Saiatzen zara prestatzen ahal duzuna hizkuntza mailan, hiztegi mailan, errimak, doinuak, ikuske-ra, gaurkotasuna... Pentsamen-dua fintzen edo finkatzen ere aritzen naiz, gauza desberdinei buruz gehiago pentsatzen. Ha-lako gauzak egiten ditut, oso lanbroak direnak; eta, probatu arte, ez dakizu lan horrek nahi duzun emaitza emango duen, ez da matematikoa.

Bost urte hauetan gauza asko gertatu dira, azkar doa dena. Oholtzan kokatzeko lanketa berezia egin behar izan duzu? Bai, bost urte hauen ondoren be-reziki, baina hori etengabe egin behar den gauza bat da. Ber-tsogintzak beti erantzuten dio bere garaia eta inguruari. Urte asko generamatzan muturreko aldaketarik edo aldaketa hain nabarmenik gabe, pandemia bat bezalako gauzak ez zaizkigu pasa, gure belaunaldiak ez ditu ezagutu. Guk ezagutu dugu ga-tazka armatua, gatazka ondore-na, krisia, heroinaren garaia... Garai bakoitzak dauzka bere ko-rapiloak, eta beti izaten da zeri kantatu. Ez nuke esango orain ezberdina denik, gure lana egoerari erantzutea da, eta he-rriari edo inguruari kantatzea.

Beste kontu bat da pasa di-ren gauzak ezohikoak izan dire-la, eta lehen geneuzkan ardatz nahiko finkatuak mugitu edo dardaratu egin direla. Diskurtso eta elementu berri batzuk ager-tu dira, eta kezkak beste batzuk dira. Gure lanabesa hitza den heinean, etengabe aritu behar dugu kokatzen. Azken urteetan gertatu dena da gertakizunen garapena gero eta azkarragoa dela, eta oraintxe gaudela hala-ko inflexio puntu orokor, sozial eta soziopolitiko batean.

Ez da erraza kokatzea, dis-kurtsoak konplexuagoak dira, jendearekin bat egitea konple-xuagoa da, baina, era berean, interesgarria da hori.

Nola daramazu espektatiben kontua? Saiatzen naiz kontu horietatik nahiko aparte egoten. Apenas jarraitu ditut bertsolaritzari bu-ruzko podcast, programa para-lelo, txio eta tankerakoak. Nire burua babesten dut kontu ho-rietatik. Ziurrenik espektatibak izango dira, nik ere badauzkat nire buruarekiko, eta nireek kezkutzen naute. Nire burua-rekin autoexigentzia, gogoia eta nahia dauzkat, eta horri eran-tzutera joango naiz. Kanpoko espektatiben kontua ulertzen dut, eta pozgarria da egotea, esan nahi duelako jendeak zer-bait espero duela zuregandik. Dena den, jendeari beti ezin diozu eman espero duena, eta, tarteka, nahi duena ere ez. Nik nire buruarekiko daukat borro-ka, eta jendearekiko errespetu guztiarekin, nire onena emate-ko nirekin egiten dut borroka. Saiatzen naiz burrunbatik kan-po egoten.

Txapela irabaziz gero koska bat igoko zenuke, motibatzen zaitu horrek? Erantzun honek topikoa izateko arriskua dauka, baina egia da. Nire helburua ez da hirugarren txapel bat irabaztea, ez da mar-ka bat gainditzea edo txapelak pilatzea pilatzeagatik; hiruga-rren txapela horrela lortzea ez da nire helburua. Nire burua-rekin daukadan borrokari eta autoexigentziari erantzun nahi diet, eta, koska bat estututa, nik nahi dudana horren bila joan eta aurkitu nahi dut. Aipatu ditu-dan helburu horietara iristen banaiz, izan daiteke emaitza txapela izatea, eta, hala bada, pozik egongo naiz. Hala ere, nik nahi dudanetik hurbil ibilita emaitza ez bada txapela, gus-tura egongo naiz berdin-berdin. Gehiago da egin nahi dudanari garrantzia ematea, eta ez hain-beste egin nahi dudana horrek emango lukeen emaitzari.

Zer da gehien kostatzen zaizuna bertsoan? Zeri eskaintzen diozu denbora gehien? Txapelketan egoerak planteatzen dira oso modu jakin ba-tean, modu nahiko neutro eta berdin batean. Orduan, askotan, horren kontra egitea da borro-ka; dena lurrera, lekura eta mo-mentura ekartzeko. Oraindik ez dut aurtengo txapelketan par-te hartu, eta ezin dut zehazki esan, baina borroka izaten da, ohiko saioetan ere, bertso per-tinenteak osatzea, lekuari eta



Aurreneko kontaktua izango du bihar txapelketarekin: «Bertara joan arte ez dakizu nola zauden», aitortu du.

momentuari zerbait esango diotenak. Horrekin ez dut esan nahi dena seriotik landu behar denik, zentzu askotan landu daiteke, baina pena ematen dit bertso saioak hutsaren gai-nean eraikitzeak, berdin due-nean Hernanin, Legazpin edo Goizuetan den, edo aurten edo duela 7 urte abestu den. Helbu-rua gauzak zentzuarekin egitea da, edukiarekin. Hori izaten da nire borroka beti, ez txapelketan bakarrik.

Jarri zara hemendik 4 urtera begira? Ez du merezi orain ezer esateak, ez dakigu zer izango den heme-dik lau urtera, auskalo. Ez dakit. Ez dakigu aurtengoa nola bu-katuko den eta gero zer izango den. Dena den, ikusten dut txa-pelketa ez dela betirako, nekea suposatzen du. Badator gazte jendea, badator beste belaunaldi bat, eta ez dauka zentzurik hor egoteak betirako. Helburua ez da ebatzea zein den onena, guk hor egin dugun ibilbidea beste ba-tzuek jarraitu dezakete, eta guk gure egitekoak beste era batera egiten segi.

Zer du txapeketak gozotik eta zer gazitik? Gauza asko esan daitezke. Go-zotik izan dezake daukan di-mentsio eta popularidadeak bertsolaritzari ematen dion zabaltasuna. Bertsoa asko ja-rraitzen ez duen jendea ere hurbiltzen da saioetara, eta hor ikusten da ari garela iristen eta zabaltzen. Finala Iruñean egi-teak ere burrunba sortzen du, eta horrek ondorioak izan ditza-ke han inguruan, hango bertso munduan. Bertsolaritzaren po-

pularizatze horrek badauka alde gozoa.

Gaziak diren gauza asko esan daitezke. Hau ez da karrera per-sonal bat bakarrik, txapelketa da modu bat lehiaren bidez bes-te helburuetara iristeko, eta hel-buru horiek izan daitezke artis-tikoak, kreatiboak, politikoak, sozialak edota linguistikoak. Bide horretan planteatzen du-gun modua lehia da, eta lehiak baditu bere gaziak; gaziak dira udazken guztian pasa ditugun penak, kideen puntuak, ulertu ez diren bertsoak, lagunak tris-te ikustea... Azkenean, dena da hain lagunartekoa, lehiak urra-durak sortzen dituela.

Txapelketa eta gero, zer? Betiko martxan jarraituko dugu, betiko saioetan. Horrez gain, halako ariketa hain exigente bat amaitzen duzunean gogoia ematen dizu lehertu eta guztiz desberdina den beste zerbait egiteko. Aurreikusten dut mo-mentu ona izan daitekeela, edo gogoia izango dudala, beste ildo batzuetatik zerbait probatzeko, lehen egin ditudan tankerako emanaldiak, edo hain arautuak ez dauden gauzak egiteko gogoia izango dudala. Letren eta hitzen munduan jarraituko dut, eta, agian, orain arte egin gabeko gauzak egiten saiatuko naiz, ikusiko dugu. **k**



Bigarrenez jantzi zuen txapela hernaniarrak, duela bost urte.

«Bertsotan egin nahi nuke; horrek mugitzen nau, mugitu izan nau eta mugituko nau»

Bertsotan egitea, horixe da Aitor Mendiluzeren asmoa. Seigarren finala izango du bertsolari andoaindarrak, eta eroso sentitzen ari da aurtengo txapelketan. Buruz burukora iritsi zen aurreko edizioan, baina ez dio bere buruari helburu zehatzik jartzen; mugarik ere ez.

HERNANI AITOR MENDILUZE

Finaleko beteranoa izatea egokitzen zaio Aitor Mendiluzeri. Zazpi aldiz hartu du parte Txapelketa Nagusian, eta seigarren aldiz sailkatu da finalera. Gustura dabil bertsotan, eta sentsazio onak izan ditu orain arteko saioetan.

Zer moduz zaude?

Zein da finaletik hain denbora gutxira duzun gorputzaldia?

Ondo nago, lasai xamar, eta sentsazio onekin. Txapelketa honetan, orokorrean, sentsazio onekin ari naiz, eta horren jarraipenarekin edo iraupenarekin nago. Urruti ikusten da finala, eta, era berean, gertuegi. Ez dago denbora haundirik ezertarako, baina zain egoteko denbora gehiegi da. Beraz, errutinari jarraika, laneko kontutan, eta ahalik eta normalen ibili nahian nabil.

Azken finalaurrekoan hasi zen zure ibilbidea. Luzea izan zen itxaronaldia?

Indibidualki hartuta ez du hain besteko garrantzirik, norberak jartzen du bere hasiera puntua eta bere tentsio puntua, bere daten arabera. Gertatzen dena da guk txapelketa ez dugula indibidualki bizi, taldean bizi dugu, eta taldekideak abesten hasten direnean norberak ardurak eta kezkak sentitzen ditu. Horrek bai eragiten du txapelketa luze egitea, besteekiko bada ere, norbera tentsionatzen, kezkatzen eta ilusionatzen hasten delako hasieratik. Dena den, nahiko ongi dosifikatu dut energia, zaharra izateak ere laguntzen du, eta ez naiz emozionalki nekatuegi iritsi.

Lehenengo saioan puntu sorta haundia eskuratu zenuen. Zer moduz sentitu zinen Durangon?

Oso eroso sentitu nintzen. Oholtzara igo aurretik oso sentsazio politak izan nituen, talde giro ona zegoen, bereziki gustura egon nintzen taldean. Behin oholtzara igota, oso nire lekuan

egon nintzen. Beste txapelketa batean seigarren aulkia egokitzeko buruhausteren bat eragingo zidan; oraingoan, aldiz, ez. Berdin zitzaidan norekin egin ariketa bakoitza, eta oso nire lekuan sentitu nintzen; oso nor, oso jabe. Inoiz baino jabeago oholtzan bete nezakeen lekuaren inguruan, eta ez bakarrik bertsotan, baita ere taldean, taldearen zaintzan eta zaintza jasotzen. Naizenaz eta dudana jabetuta irten nintzen oholtzara.

Sendo aritu zinen ariketa guztietan. Esperientziak laguntzen du pisu haundiagoa hartzen ofizioetan?

Hori, neurri batean, edonoren esku dago. Ofizio bat egin behar duen edonork egin dezakeen zerbait da, baina zailena ez da egitea, zailena ohartzea da. Hori esperientziak erakusten duen gauzetako bat da; irakurketa hori egiten eta gauzatzen. Behin argi duzunean saioa non kokatu nahi duzun eta zergatik kokatu nahi duzun hor, bestea zugarak erakartzea ez da hain zaila, baduzulako kokapen bat. Baina ez da bakarrik bestea ekartzea, besteari bide bat markatzea ere bada. Alegia, ez nuke esango izan denik nire terrenora ekartzea, baina bai nik ikus nezakeen ibilbide batera bideratzea, beretzat eta niretzat. Saihesteko ibilbiderik ikusten ez nuen beste bide batetik joatea. Hori egiteko, esperientzia gradu bat da, noski.

Lehen saioan hainbeste puntu eskuratuta, nola joan zinen Bilbora? Zein zen zure helburua?

Bilbora joan nintzen Durangora joan nintzen bezalaxe: saio on baten bila. Batik bat eskaintzera joan nintzen, entzuleei, kantukideei eta nire buruari. Egia da Durangon baneukala lehen saioa zenaren lasaitasun bat, banekien, dena ondo bidean, bigarren saio bat egongo zela; eta, aldi berean, banuen lehen saioa izatearen ardura. Bilbora ere baneraman ardura bat ondo egin nahiarena, baina, era berean,



Finalaurrekoetan sartu zen txapelkeraren gorpillean, eta lehen saioan bideratu zuen finalerako sailkapena.

Durangoko puntuek lasaitasuna ematen zidaten. Bi finalaurrekoetako helburua izan da bertsotan saio on bat egin eta eskaini nezakeenaren isla izatea, bertsogintzan, nortasunean, zaintzan, jarieran eta transmisioan.

«Badakit, oro har, maila ona ematen dudala bertso saioetan, baina hanka ere sartzen dut, beste edozeinek bezelaxe. Aspaldian gustura ari naiz bertsotan, eta horrek konfiantza ematen dit»

Seigarren finala duzu jarraian. Urduri jartzen zara oraindik? Urduritzen naiz, beste denak bezelaxe, eta uste dut urduritu behar dela. Beharbada ez naiz izutzen, edo ez naiz korapiltzen horretan. Aurreko saioetan oholtzan urduri nengoen, baina ez nengoen tentsioan. Urduritasun positiboa zen, sentitzen ditut barruan kilima batzuk,

eta sabelean beroa. Guzti hori bai, baina ez neukan beldurrik, ez neukan paniko edo sentsazio negatiborik.

Bada nire bertsokerarekin lotutako zerbait, baina, era berean, nire momentuarekin eta nire jabetze horrekin lotutako zerbait da. Eszenatokian bete dezakedan edo bete dudana lekuaz jabeago izateak eramaten nau erosoago sentitzera. Uste dut inoiz baino kontzienteago naizela horretaz: zer leku duan, zer nahi duan, zergatik eta zertarako. Hori finkatuta izanik, errazagoa da urduritasuna positiboan hartzea, eta hortik abiatzea sormenera. Nire kasuan lotuta dago ibilbidearekin, eta baita, noski, lanketa iraunkor batekin.

21 urte daramatzazu finaletan, 2001etik. Jende gaztea sartu da aurtan, eta hiru emakumek abestuko dute. Aurtengoa da final guztietan anitzena?

Adin eta belaunaldi artekotasun hori zalantzagarrria da. Nik lehenengo finalean abestu nuen Andoni Egaña eta han ziren, eta gu orain baino askoz ere gazteagoak ginen, bistan da. Baze goen belaunaldi artekotasun

bat. Ordukoarekin konparatuta, alde gehiago dago emakumeak egotearekin, baina ez dut uste, eta asko fokalizatzen ari da horretan, emakumeen kolorea bakarrik denik. Hiru emakume daude; bai, noski, eta nafar bat, oso gaztea dena, eta bi zahar, normalean bertsolari gehienak txapelketan izan direna baino zaharragoak. Iruditzen zait argazkiak kolore asko dituela, eta bakoitzak aportatzen dituela bereak. Badirudi hiru berri sartu direnean koloretako argazki bihurtu dela, eta ez dut uste hala denik. Aurreko finalak anitzak izan dira zentzu askotan, jende askok ikusi nahi izan dituen baino zentzu gehiagotan. Ohituta geunden aniztasun batera, eta orain aniztasun desberdin bat da, baina ez dut uste orain anitza denik eta lehen ez. Beste argazki bat da, eta, zorionez, oso argazki polita.

21 urte hauetan zer aldatu da finaletan? Eta zer ez da aldatu? Aldatu da bertsolariok finala hartzeko modua, baina hori oso pertzepzio subjektiboa da. Ni lehenengo finalean ez nintzen ezertaz jabetzen, oso haundi harapatzen zaitu denak, oso az-

«Eszenatokian bete dezakedan edo bete dudan lekuaz jabeago izateak eramaten nau erosoago sentitzera. Uste dut inoiz baino kontzienteago naizela horretaz: zer leku dudan, zer nahi dudan, zergatik eta zertarako»

pian eramaten zaituen zerbait da. Orain, aldiz, askoz ere jabeago naiz zer den eta zertara noan, nolakoa izango den aurreikusi dezaket. Bertsolariak zainduago edo integratuago egotearena ere bada pertzepzio subjektibo bat, baina neurri batean bai aldatu da talde sentsazio hori. Emaizetan aldatu da txapelketa, diskurtsoetan eta bertsokeretan.

Aldatu ez dena da final bat final bat dela, lehen eta orain. Ez da gu joan eta bertsotan egitea bakarrik; hor daude gaien iraurketa, gaien atzean dagoena, bertsok hartzen dituen dimentsio posibleak... Hori lehen ere bazegoen. Orain, beharbada, elementu diskurtsioboei dago-kienez, askoz ere filtro desberdin gehiago daude. Lehen diskurtsoa homogeneousagoa izan zitekeen, uniformea ez, baina bai homogeneousagoa. Momentu honetan ez.

Aldatu den beste gauzetako bat da publikoaren jarrera bertsoekiko, edo bertsotan esaten denarekiko. Filtro desberdin gehiago pasatzen ditu bertso bakoitzak, eta filtro bakoitzean geratzen da gauza bat edo bestea. Hori aldatu da, baina, era berean, jarraitzen dugu diskurtosak eraikitzen betiko eskema baten gainean. Hala ere, ez nuke esango kontraesan bat denik, egin daiteke betiko tokitik diskurtso berri bat, inongo arazorik gabe.

Entzulea aipatu duzu. Sare sozialak ere iritsi dira bertso mundura, eta inoiz baino errazagoa da bertsolarien lana epaitzea. Nola daramazu?
Sare sozialetan jartzen denak, dudarik gabe, eragina izan dezake, baina norberak uzten dion tokirainokoa da eragin hori. Nik ez daukat sare sozialik. Niri buruz hitz egingo da, beharbada, beste batzuei buruz hitz egiten den bezalaxe, baina ez zait interesatzen hor esaten dena. Oso jende gutxi etorri zait aurrez aurre zoriontzera edo bertso bat gustatu ez zaiola esatera, eta norbaitek kritikatu nahi baina, edo nire bertsoak kritikatu behar baditu, eskertuko nioke

«Txapelketak gozotik dauka norberak planteatzen duen eboluzioa garrantzitsua dela norberarentzat, txapelketa horretan atera edo ez. Ondo egindako lana bada, gerora emango du beste fruitu bat»

aurrez aurre egitea. Sare sozialetan edozer jarri eta niri esaten ez didanarengandik ez daukat ezer ateratzeko.

Dena den, zenbait bertsolariren ahotan bai entzuten direla gai honi buruzko komentario batzuk: honek hau jarri du, harek bestea jarri du, edo kontuz gero jarriko duelako. Zer pentsatua ematen du. Oholtzara igotzen bazara bihar norbaitek, askotan bere sinadurarik gabe, esango duen zerbaitek baldintzatuta, puf, horrek beste dimentsio bat hartzen du. Bertsolaria ezin da gero esan dezaketenaren beldurrez igo; izatekotan, bere inkoherentzien beldur igo daiteke, hanka sartzeko beldurrez.

Nik pentsatzen dudanak beste norbaitek pentsazen duenarekin talka egiten badu, eta etortzen bada esatera, akaso konbentzituko nau, eta pentsatzeko modua aldatuko dut. Gainontzean, beste kritikak ez zaizkit interesatzen.

Bertsotara itzulita, dadirudi Mendiluze ez dela sekula erortzen, beti goi mailan dagoela. Akatsak egiteko ere baimen gutxiago daukazu...
Jendeak ematen didan baimena jendearen arazoa da, ez nirea. Ulertzen dut jende askok positiboan esaten dituela halakoak, baina pentsatzen dut, eta txapelketa garaian bereziki, jendea oso mitomanoa dela. Gu finalistak izan ginen duela bost urte, eta denbora honetan gauza asko gertatu dira. Noski, estimatzen da, borondatetik den neurrian, baina ez dut uste horrek benetan definitzen gaituenik.

Ez naiz umiltasun faltsuetan hasiko, kontziente naiz maila on bat ematen dudala bertso saioetan, baina hanka ere sartzen dut, beste edozeinek bezelaxe. Bai esan nezake bertsotan gustura ari naizela aspaldian, eta horrek konfiantza ematen didala txapelketan ere, baina esatea ez dudala kale egiten eta beti oso maila altua ematen dudala ez dut uste erreala denik. Ni sokaren gainean jarriko naiz finalean, eta amaierara iristen saiatuko naiz, beste edozein be-



Zortzi finalistetatik helduena da Aitor Mendiluze, eta taldea zaintzeko ardura ere sentitzen du.

zala, arrisku eta borondate berarekin.

Finaletik finalera aldatuko da, noski, ikuspegia. Zein da aurten duzun asmoa? Zerk motibatzen zaitu?
Bertsotan egin nahi nuke. Bertsotan egiteak mugitu izan nau, mugitzen nau eta mugituko nau. Ez daukat txapelketan postu jakin bat lortzeko asmo edo helbururik, ez dut inoiz eduki, ez dut uste ona litzatekeenik niretzat, eta ez dut horretan pentsatu ere egiten. Beste kide batzuei entzun izan diet: ni hau egiten saiatuko naiz, nik hau utzi nahi dut, ekarpen hau egin nahi dut... Bada, nik bertsotan egin nahi dut. Oholtzan eroso sentitu nahi nuke, sentsazio positiboekin jarraitu, bertsokideei ekarpena egin eta kideei gustura sentitzen lagundu. Zaharre-na naizen aldetik ere badagokit taldea zaintzea. Gozatu egin nahi dut, nire posizionamendu, aukera eta ibilbideetan asmatuta. Horixe da nire helburua.

Sokaren gainean jarriko zara berriro ere. Sokak jarraituko du hemendik lau urtera?
Ez daukat pentsatuta, eta ez dut pentsatuko. Aurten ez joatekotan egon nintzen, baina eroso sentitzen ari naiz txapelketan. Ez naiz gai nire buruari esateko lau urte barru ez dudala hor egon nahiko. Badakit utzi izan duten kideetako batzuk agurra finalean irudikatu nahi izan

dutela, eta jende guztiaren aurrean agurtu direla. Nik ez diot nire buruari hori opa, ez dut behar. Txapelketa uztea erabakitzen dudanean utzi egingo dut eta kito, ez dut halako agur apo-teosikorik behar. Beraz, orain oraingoa egin eta hurrengoa datorrenean ikusiko dugu.

Zer du txapelketak gozotik eta zer gazitik?
Gozotik asko dauka. Bertso plaza ikaragarri bat da: jendea, jendearen emana, baldintzak, oholtza, argiztapena... Alderdi eder asko ditu. Gaiak ere alde-aldekoak izaten dira, beti onak ez, baina alde-aldekoak, eta baldintza oso onak izaten dira bertsotan egiteko. Gozotik dauka norberak txapelketa baterako planteatzen duen eboluzioa garrantzitsua dela norberarentzat, txapelketa horretan atera edo ez. Gerta daiteke norberak lan bat egitea, eta txapelketa horretan ateratzeko gai ez izatea, baina lana hor dago, eta, ondo egindakoa bada, gerora emango du beste fruitu bat. Mugarri edo garapen gune bezala asko balio duela esango nuke.

Garratzetik izan dezake edozein epaiketak duena, epaiarekin ados ez egotearena. Puntuaketa beti da erlatiboa, beti da subjektiboa, eta, gainera, beti da kakotx artean hartu beharreko zerbait. Badakigu egun batetik bestera, bertso batetik bestera, puntuaketa ez dela erabat matematikoa eta zehatza izango. Era berean,

denok jabetzen gara txapelketan beti daudela nabarmenak diren injustiziak; gu epaile jarrita berdindin-berdin gertatu zitezkeenak. Gainontzean, izan dezake norberaren momentuaren arabera garraztasun bat. Eboluzio batean baldin bagoaz, eta txapelketa batean puntu definitu batean bagaude, ondo. Baina harrapatzen bazaitu bi punturen arteko ibilbide horretan, txapelketak kontraeskura harrapatzen zaitu. Kasu horietan oso zaila da adierazi nahiko zenukeena adieraztea, edota izan nahiko zenukeen bertsolaria izatea. Gainera, urteak itxaron behar dira aukera berri bat izateko. Garratzetik hori du, zaila baita epeak eta momentuak kudeatzea. Guzti hau esanda, uste dut gozotik normalean gehiago duela, edo izan beharko lukeela.

Txapelketa eta gero, zer?
Lanean jarraituko dut. Eguneroko lanean, zortzi orduko jardunean eta plazan. Saio batzuk baditugu, eta espero dut gehiago etortzea. Plazan ekarpenak egiteko gogoz nago, bertsotan aritzeko gogoz eta txapelketan egiten dudanaren, edo egiten ez dudanaren, hurrengo pausua eskaini nahian. Ez dut uste nire bizitza aldatuko denik, gertatzen dena gertatzen dela, eta ez nuke nahi aldatzerik. Izatekotan, mugarri bat gehiago izan dadila; mugarri eder, dotore eta distiratsu bat, baina ez bidearen amaiera. **k**

«Saiatuko naiz nire identitatetik kantatzen, interesatzen zaizkidan ikuspuntuetatik»

Bigarren partehartzean lortu du Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera sailkatzea Nerea Ibarzabalek. Bizkaiko txapelduna gogotsu dago kezkatzen eta emozionatzen duten ikuspuntuetatik abesteko, eta ondo pasatzera, lanera, goatzera eta olatua hartzera doa Iruñera.

HERNANI NEREA IBARZABAL

Lehenengo aldiz dastatuko du Nerea Ibarzabalek, Hernanin bizi den bertsolari markina-xe-meindarrak, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalak duen zaporea. Behetik gora eginda, Baionako finalaurrekoa irabazita sailkatu da Ibarzabal, eta gogotsu dago emozionatzen edo kezkatzen duten gauzei ahalik eta propioena izango den ahots batekin erantzuteko.

Lehenengo fasean hasi zen zure ibilbidea, zer sentsazio utzi dizu orain artekoak? Zein bertsoaldirekin geratzen zara? Ez dakit zein ariketa aukeratu-ko nukeen, bertso asko joan dira Gotainetik Baionaraino. Baina, orokorrean, beti bakarkako ariketetan sentitzen naiz erosoan, edo, behintzat, hor sentitzen dut bertsoen norabideen eta gaien kontrol haundiena. Bakarkakoren bat aukeratu-ko nuke agian, nahiz eta sentsazio aldetik bakarkako desberdinak izan diren, eta bizipenez nahiz sortze prozesuari dagokionez hiru saioetakoak oso ezberdin bizi izan ditudan. Zortziko txikia ere asko gustatzen zait.

Bigarren aldia duzu txapelketa nagusian. Asko aldatu da esperientzia lehenengotik aurtengora? Bai, bigarren aldia da, eta esperientzia aldatu da lehenengotik. Lehenengo aldiek berezkoa duten zorientasun eta inkonszientzia hori bat eta bakarra da. Bigarrenean banekien txapelketa luze joan zitekeela, une batzuetan gogorra izan zitekeela eta, nire buruan, udazkeneko gai bakarra izango zela. Zentzu horretan mentalizatuago nengoen horretarako, eta uste dut prestatzeko esperientzia aldatu dela, aurreko edizioan egin nuena berdindu nahi nuelako, edo, behintzat, finalaurrekoetako bigarren itzulira heldu nahi nuelako; txapelketa luzatzea zen nahia. Bigarren aldia espektatibatxo pertsonal horrekin hasi nuen.

Zer zenekarren ikasita aurreko ediziotik? Eta zer ikasgai eman dizu aurtengoak?

Lehenengotik ikasita nekarren foku mediatiko eta publiko oso haundi bat dela txapelketa. Lehenengora arte ez nintzen kontziente, jende pila bat egoten da hizketan honi buruz hilabete askotan zehar, eta hori 2017an *shock* moduko bat izan zen niretzat. Bigarrenarako banekien, eta sare sozialak desinstalatzeko ibili nintzen, zurrumbilo horretatik pixka bat aldentzeko.

Bigarrenak erakutsi dit hiru hilabetetan emozio ezberdin asko egon daitezkeela bakoitzaren barruan, eta askotan ez dakizula egun bakoitzean zein agertuko den. Batzuetan aste bat beranduago agertzen da lehenago espero zenuen sentimendua. Emozioen kontrola erakutsi dit, hein batean, txapelketa honek. Jabetu naiz izaki konplexuak garela, eta denak eman dezakeela buelta; aukerarik ez daukagunean ere badituzula aukerak, eta aukerak dardela uste duzunean posible dela aukerarik ez egotea.

Lehen aldia duzu Euskal Herriko finalean, nola irudikatzen duzu eguna?

Ez dakit nola irudikatu. Publiko gisa ikusi dut beti, umetatik, eta publikotik beti iruditu zait egun hunkigarri, haundi eta gogoangarri bat bertsolaritzarentzat. Beraz, oholtzatik biziko dudanez, irudikatzen dut horrela bider 1000. Norbera oholtzan egonda ardura batetik ere irudikatzen dut, ez gozamenetik bakarrik, lanetik ere bai.

Zer da, zure ustez, garrantzitsuena halako egun batean?

Iruditzen zait ez dela ahaztu behar uneoro oholtzan zaudela. Momentu batzuetan posible delako emozioei uztea edo oharkabean pasatzea eguna. Kontziente izan behar da aldiro, altxaldi bakoitzero, bertsotan egin behar dela.



Sendo hasi zuen txapelketako ibilbidea Nerea Ibarzabalek, Gotaine-Irabarneko saioa irabazita.

Aipatu duzu ez zarela sekula aritu hainbeste orduz bertsotan. Nola entrenatzen da hori?

Uste dut txapelketan parte hartu dugunok aspalditik ari garela entrenatzen, udatik ari garela entrenatzen, edo, behintzat, bu-

hainbeste orduz jarraian kantatu, baina askotan izaten ditugu egunean bi bertso saio, larunbat goiz eta arratsalde; beraz, ez dut uste horrengandik oso urrun ibiliko denik. Askoz ere masiboagoa izango da, hori bai.

Ariketa asko daude finalean. Batenbat egiteko gogo berezia duzu?

Orain arte egin ditugun ariketen antzerakoak dira, buruz burukora pasa ezean. Baina badaukat gogoak bakarkakoetan gai itxiagoei abesteko, ganbarakoak ez diren bakarkakoetan abesteko.

Aurtengo finalean bi aldaketa esanguratsuren parte zara: gaztea eta emakumea. Zer sorrazten dizute aldaketa hauek?

Argazki horren parte izatea sekulako poza eta ohorea da niretzat, jakinda beste edozein ere izan zitekeela, bazeudelako gazte eta emakume asko. Maila pertsonalean, sekulakoa da niretzat. Finalean argazki hau ikusi ahal izateko azken urte mordo batean plazetan horrelako mila argazki ikusi behar izan ditugu; gazteen plazak,

emakumeen partehartze askoz ere haundiago bat, ahots ezberdinak, diskurtso anitzagoak... Plazaren eboluzioari esker, eta bertsozalegoaren ardatzaren mugimendu bati esker, ikus daiteke orain izebergaren puntan ere aldaketa hau gauzatuta. Zentzu horretan txapelketarentzat historikoa da, baina plazako indarrak ahalbidetu du.

Aldaketez gain, zer moduzko zortzikoak ikusten duzu?

Uste dut oso polita geratu dela. Bertsokera oso ezberdinak ditugun bertsolariak gara. Ahots, norabide eta kantatzeko leku ezberdinak ditugun bertsolariak gara, eta belaunaldi aldetik ere bakoitzaren ordezkaritza bat dago. Horrek aberastu egingo du saioa, eta, beharbada, duela bost urte entzuten ez ziren bertsoak entzungo dira, aldaketa hauen ondorioz.

Zein gai edo zein ikuspuntu landu nahi dituzu Iruñean?

Beti daukagu tartetxo bat norbere ikuspuntua plazaratzeko, erabakimen gaitasuna dauka bertsolariak, baina, oro har, gaia ere suertatu egin behar da. Halako saio luzeetan hainbeste

«Aurtengoan jabetu naiz izaki konplexuak garela, eta denak eman dezakeela buelta; aukerarik ez daukazunean ere badituzula aukerak, eta aukerak daudela uste duzunean posible dela aukerarik ez egotea»

«Ni Iruñera noa ondo pasatzera, lanera, gozatzera, olatu hori hartzera eta jendeari ondo pasaraztera. Bertsozaleei egun eder bat oparitzera, niri dagokidan ardura zortziren hortatik»

gai daudenez eta hainbeste arazo, poz edo gauzari abestu behar zaenez, saiaturko naiz beti nire identitatetik edo nagoen lekutik kantatzen; niri interesatzen zaizkidan ikuspuntuetatik. Ez daukat gai zehatzik buruan, gehiago da ni emozionatzen edo kezkatzen nauten gauzei ahalik eta nireena izango den ahots batekin erantzutea.

Dagoeneko badakizu zer den final batean parte hartu eta irabaztea. Lagungarria da esperientzia hori bestelako final bati aurre egiteko?
Nik uste dut baietz. Dena dira tablak. Edozein bizipenek erakusten dizu zerbait; zure buruari buruz, jendeari buruz, egoerei buruz, nerbioei buruz... Bizkaiko finalak izan dira kantatu dudana lekurik jendetsuenak, eta han ikasi dut ordu luzez eusten tentsioari eta kontzentrazioari. Espero dut horrek ere lagunduko didala, nahiz eta argi dagoen saio bakoitzean egunak, lekuak eta bertsokideak desberdinak direla. Hasiberri baten ondoan jakintza horrek beti laguntzen du.

Ez dakigu Ponpeiak epika gosez jarraitzen duen ala ez, baina zein intentziorekin joango zara Iruñera?
Ni Iruñera noa ondo pasatzera, lanera, gozatzera, olatu hori hartzera eta jendeari ondo pasaraztera. Jendeari egun eder bat oparitzera, niri dagokidan ardura zortziren hortatik. Egun gogoangarri bat izan dadin neure alea jartzera.

Zer du txapelketak gozotik



Irungo finalaurrekoan espero baino puntuazio apalagoa lortu zuen, eta Baionan eskuratu zuen finalerako txartela.

eta zer gazitik?
Txapelketak gozotik eta gazitik du dena. Hasteko, lehia dauka. Gure plazak ez dira lehiadunak, bertsokideok elkarren lagunak gara, eta bestelako espazio batzuk konpartitzen ditugu lasaiagoak eta errazagoak direnak. Bapatean, lehia testuinguru batean jartzen garenean, gazitik daukazu zeure mina eta bestearen poza, eta bestearen mina eta norbere poza

uztartu beharra; batzuk aurrera, besteak behera, baten akatsa, bestearen mina, bestearen ilusioa... Ilusio horiek elkarrekin kudeatzea ez da erraza.
Gozotik dauka momentu batean milaka pertsona elkartu ditugula, Euskal Herriko txoko desberdinetan, euskerazko kantu inprobisatuaren inguruan. Hori lorpen bat da, eta hori da izena ematera bultzatzen zai-

tuen indar bat. Ez bakarrik gogo indibiduala, baita kolektiboa ere. Alde gazia da pertsonalki pasatzen dizula faktura, nekean, loan edota prestaketa gogorrean, eta gero emaitza inoiz ez dela ziurra. Baina, hala ere, urterik urte hor ari bagara, zerbaitengatik da. Ni, pertsonalki, asko hunkitzen naiz ilusio kolektiboarekin, eta, momentuz, prest nago hortik pasatzeko.

Txapelketa eta gero, zer?
Lo (barrez). Txapelketa eta gero saio asko etortzen dira: finalisten saioak, gabonak... Beste modu bateko exigentzia da, beste modu bateko bertsolaritza eta publikoa, eta horretarako gogoz nago, nahiz eta hurrengo urtean berriro Bizkaiko txapelketa datorren. Tarte gutxirako izango da lasaitasuna, baina ohituta gaude. **k**

Urte bat beteko da bihar Bizkaiko txapela jantzi zuenetik

Egun berezia izango da biharkoa Ibarzabalentzat. Urte bat beteko da Bizkaiko txapela jantzi zuenetik, eta, biharko finala pasata, Bizkaiko Txapelketara begira jarriko da berriro.

Egun gogoangarria izango da biharkoa Nerea Ibarzabalentzat. Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehenengo finala jokatu du, eta urte bat beteko da Bizkaiko Txapelketa irabazi zuenetik.
Txukun aritu zen, orduko hartan, final osoan zehar, baina buruz burukoan jo zuen kolpea. Jone Uriarekin batera pasa zen finaleko azken fasera, eta sailkapenari buelta eman zion Ibarzabalek.
Txapelketak sortzen duen zurrunbiloan darama azken urte luzea, eta ezin izango du bertatik atera; ez behintzat datorren urtera arte. Bizkaiko Bertsolari Txapelketa bueltan izango da 2023ko udazkenetik aurrera, eta bertan arituko da markina-xemeindarra. **k**



Urte bat beteko da bihar Ibarzabalek txapela jantzi eta aginte makila eskuratu zuenetik.

«Aurreko finalean ez nintzen gustura geratu, eta arantzatzxo hori kendu nahi dut Iruñean»

Bertsolari Txapelketa Nagusiko hirugarren finala izango da Beñat Gaztelumendirentzat. Orain dela bost urteko finalarekin ez zen gustura geratu, eta aurtengo aukera baliatu nahi du bere buruarekin dituen zorrak kitatzeko. Ausart aritzeko eta koska egiteko asmoarekin joango da Iruñera.

HERNANI BEÑAT GAZTELUMENDI

Ohikoetako bat bihurtzen ari da Beñat Gaztelumendi añorgarra Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaletan, nahiz eta bera ez den ukiezin sentitzen. Hirugarren finala izango du Gaztelumendik, aurrekoetan baino prestatuago sumatzen du bere burua, eta oholtzan ardurak hartzeko pronto dagoela adierazi du. Ariketaz ariketa, landu duena erakusteko gogoz dago.

Hasi baino lehen, edo hasteko, zer moduz zaude? Zer gorputzaldi daukazu?

Ondo pasa dut udazkena. Egia da txapelketa sekulako zurrumbiloa dela, kanpotik jende pila bat dagoela begira, eta gu ere esposizio maila handian egoten garela, onerako eta txarrerako. Aurten nahiko ondo asmatu dut nire babeslekua sortzen. Finale-rako bidea ere desberdina izan da, lehendabiziko saioarekin bereziki gustura geratu nintzen, Durangon, eta hor ikusi nuen nire esku egon zitekeela finalera pasatzea. Baionan egokitu zitzaidan horri eustea.

Durangokoaren ondoren ez duzu zure burua guztiz barruan ikusten, baina bai hasten zarela kokatzen, eta poz haundi bat hartzen duzu finalera pasata. Hala ere, poz hori izan da asreetan zehar poliki-poliki etorri dena, ez da izan azkeneko asreetan dena jokoan duzula iritsitakoa. Denbora eduki dut asimilatzeke eta lasai nago.

Irailaren 24an hasi zen txapelketa, eta zuk azaroaren 12an abestu zenuen lehenengo aldiz. Zer moduz joan da itxaronaldia?

Niretzat txapelketa hau orain dela 5 urteko finalean hasi zen, ez nintzelako gustura geratu egindako lanarekin. Ez nuen lortu arrastoa uzterik, eta itzalita aritu nintzen; ez nuen asmatu jarraz eta kokapenez. Txapelketako zozketa apirilean edo maiatzean egin genuen, eta benetako txapelketa hor hasten dela esan

daiteke. Zozketara iritsi nintzen nire buruarekin zor eta gogo batekin: nahi nuen txapelketa ona egin, finalean egon, final on bat egin, eta arantza atera.

Irailaren 24ko asteburu horretan ez nintzen saioetara joan, nahiago nuen hasiera hori xube xamarra izatea. Azkenean nire saioa iristeko aste asko falta ziren, eta komeni da deskantsatuta iristea. Itxaronaldi horretan sentimenduak aldatzen joaten dira: tarteka sentitzen duzu kantatzeko gogo, bestetan denak zu baino hobeak direla, edota gaiak entzun eta ez zaizula biderik etorriko. Egoera mental guztiak pasatzen dira lehenengo saiora arte.

Durangoko saioa izan zenuen lehenengoa. Bigarren egin zenuen bertan, gustura?

Deskantsatuta eta fresko iritsi nintzen. Udazkenean ez ditut saio asko izan, eta aukera izan dut txapelketan zentratzeko. Durangora oso urduri iritsi nintzen. Gure kasuan, Gipuzkoako Txapelketa izan zen pandemiaren aurretik egin zen azkenekoa, eta beste herrialde guztietan pandemia garaian edo ondoren egin dira txapelketak. Inkognita haundi batekin joan nintzen, denbora neramalak hainbeste jenderen aurrean kantatu gabe. Gainera, lehenengo saioak beti sortzen du kezka hori. Fresko bezain urduri iritsi nintzen.

Seiko motzean bereziki distiratsu aritu zinen, Mendiluzerekin. Finaleko hautagaitza aurkeztu zenuten Durangon.

Kanpotik, agian, hala ikus liteke. Zortziko haundian Saioarekin hasi nintzen, oraindik urduri nengoen eta kosta zitzaidan ariketa aurrera ateratzea. Zortziko txikian lasaiago nengoen; ez distiratsu, baina ondo. Ondoren, puntuka Juliorekin eta seiko motzean Aitorrekin oso gustura aritu nintzen. Ez dakit ariketa horretan kolpea jo genuen ala ez, baina nik banuen gogo arrasto bat uzteko, eta ariketa horretan



Hirugarren finala izango da Gaztelumendirentzat, eta arriskuak hartu nahi ditu aurtengoan.

sentitu nuen utzi nuela, jendearekin konektatu nuela.

Saio horretan puntuazio oso altua aterata, lasai joan zinen Baionara?

Zaila da hori gestionatzea. Inoiz ez nintzen halako puntuaziara iritsi finalaurreko batean, eta sentitzen duzu pauso bat baino

«Lehen pentsatzen zen txapelketan gertatzen zirela aldaketak.

Orain alderantziz gertatzen da, plazan gertatzen dira aldaketak, eta zaila da aldaketa horiek txapelketan ikustea»

gehixeago eman duzula finalera, baina erdi hori oraindik eman beharra dagoela. Abantaila hori baduzu, baina, aldi berean, ardura ere bai; erabat zure esku dagoelako. Testuinguru horrekin, finalera begira nengoen, baina Baionako saioa tartean zegoen, eta uste dut ez nuela as-

matu ondo kudeatzen. Baionara ez nintzen iritsi nahi nuen moduan, kontserbadoreago iritsi nintzen, distira gutxiagorekin.

Saioan zehar non nabaritu zenuen distira falta hori?

Durangon ideiak erraz okurritzen zitzaizkidan. Baionan, aldiz, erosoago nengoen ideiak josten. Batzuetan saioa izaten da gaiari beste bide bat aurkitzea, eta Baionan ez nengoen gorputzaldi horretan, beste sentsazio batzuk izan nituen. Gehiago kontrolatzea tokatzen zela ikusten nuen, beste batzuk urduriago zeuden saio hartan; horregatik, tokatzen zen saioa bera babestea. Durangora banaka joan ginen, eta gero batuketa horretan taldeak ere funtzionatu zuen. Baionan, akaso, Sustairen eta nire lana izan zen taldea babestea, eta indarra horretan jarri genuen, bakoitzak egin zezakeena egiten beharrean. Gustura geratu nintzen, lan horiek ere egin behar direlako, baina pena ere badut pauso bat gehiago eman ez nuelako.

Emandako pausoa nahikoa izan zen finalean sartzeko. Hirugarrena duzu jarraian, eta

badirudi Beñat Gaztelumendi ohikoetako bat dela.

Zer deritzozu?

Kanpotik hori entzun dut, baina nik ez dut hala sentitzen. Finaletan ukiezinak diren horiek nik baino bizpahiru final gehiago dituzte. Alde horretatik ez naiz sentitzen hain ukiezin, eta kanpotik ikusten denaren eta nik sentitzen dudaren artean diferentzia dago. Aurten duda haundia nuen, ez nekien nola iritsiko nintzen txapelketara; bertsolaritza asko aldatu da, jende berria, diskurtso berriak... Saioetan kokatzeko eta gaien aurrean kokatzeko modu diferente pila bat daude. Hirugarrenez finalean sartuta oso gustura nago, eta, seguraski, aurten iritsi naiz ondoen prestatuta.

Aurten, hirugarren finala izanik, badaukazu helburu zehatzagorik?

Normalean, niri buruz hitz egiten dutenean, diotena da erregularra naizela eta bakar-kasmatzen dudala. Azken urteetan egin dudan lanketa da pentsatzea edozein ariketatan jo dezakezula goia, eta edozein ariketatan huts egin dezakezula. Hasiera batean, ez dago ari-

«Azken urteetan egin dudan lanketa da pentsatzea edozein ariketatan jo dezakezula goia. Ez dago ariketarik bereziki ona edo txarra zarenik, beti dago aukera, eta beti saiatu behar da dena ematen»

ketarik bereziki ona edo txarra zarenik, beti dago aukera, eta beti saiatu behar da dena ematen. Uste dut Durangon hori nabaritu zela; esaterako, jende askok ez zuen pentsatzen puntuka ariketa ona egingo nuenik, eta, kontrara, ganbaran ez nintzen hain gustura geratu.

Finalean ariketa bakoitza aukera modura hartu nahi dut, eta denetan arriskuak hartu. Saiatu nahi dut gauzak esaten, beste ikuspegi bat ematen, elementu berriak sartzen... Hori egitera noa, eta ez hainbeste postu baten bila.

Arriskuak hartzeak arriskuak dauzka. Prestatuago sentitzen zara horiek hartzeko?

Baliabide gehiago ditut aurten, orain dela bost urte neuzkanak baino. Arriskuena zaila da; bapatean ari zarenean arriskua dena da, eta oso zaila da arriskua de-

«Gipuzkoako txapela janzteak esan nahi du tentsio egoerak kudeatzeko gai zarela, baina txapelketa bakoitza desberdina da. Behin irabazteak ez du esan nahi uneoro ongi erantzungo duzunik»

finitzea. Sentitzen dut aurreko finalean egitera ausartu ez nintzen gauzak egiteko jarrera dudala, edozein gairi txinparta ateratzeko edo hitz jokoak bilatzeko. Txapelketaren genero honetan badaude gauza batzuk orain arte egin ez ditudanak, eta aurten egin nahiko nituzkeenak.

Zer ikasi zenuen 2013tik 2017ra? Eta zer 2017tik 2022ra?

2013an iritsi nintzen finalista berri gisa, eta finalera gozatzeraz joan nintzen. Ez nuen helburutzat bertsoan izugarri egitea. Ez dakizu bizitzan berriro noiz iritsiko zaren, edo iritsiko zaren; horregatik nahi nuen dena bizi. Bezperatik ematen digute aukera lotara joateko, eta argi nuen bizi nahi nuela bizitzako egun haundi baten modura. Une guztiekin gogoratzen naiz, zein zen egoera, zein neukan ondoan... eta gozatu egin nuen. Buruz bu-

rukooa atzetik entzutea ere sekulako luxua izan zen.

2017an ardura haundiagoa sentitzen nuen, eta esango nuke ez nuela asmatu. Askok landu nuen bertsoen alde teknikoak: errimak, joskerak... Baina ez hainbeste finalean nola kokatu nahi nuen. Finalista gazteena nintzen, baina ez nintzen hain gaztea. Testu inguru horretan, plazan era batera kantatzera ohituta nengoen, eta finalak eramanez ninduen beste leku batera. Aurten niretzat gauzak asko aldatu dira, ikasi dut saioetan ardurak hartzen, ofizioak eramanez, eta hori erakustera joango naiz.

Hain garrantzitsua da oholtzan kokatzen jakitea?

Jarrera da garrantzitsua. Hortzak zorrozituta joatea, eta ariketa bakoitza borrokatzea. Parte teknikoak, azkenean, finalera iritsi den guztiak dauka, eta oso zaila da postu bat aurreratzea teknika hobea daukazulako.

Finaleko argazkia guztiz bestelakoa izango da aurten. Zer sentitzen duzu zuk?

Poz haundia. Pribilegioa ere bada. Garai batean pentsatzen zen txapelketan gertatzen zirela aldaketak, eta gerora islatzen zirela plazan. Orain uste dut alderantziz gertatzen dela, plazan gertatzen dira aldaketak, eta kostatzen da aldaketa horiek txapelketan ikusten. 2017an hori gertatu zen, plazan ardura haundiagoarekin ari ziren bertsolari batzuk, eta finaleko

argazkia bestelakoa izan zen. Aurten gertuago daude plaza eta finala.

Aldaketa hau oholtza gainetik bizitzea jende gutxiren esku dagoen zerbait da, eta oso pozik nago. Nire kasuan, gazteena izatetik pasa naiz zentroan egotera. Hiru daude ni baino gazteagoak, erdi parean nago, eta harreman pertsonal haundia dudanez bertsolariak sartu dira. Poza ematen dit egun hori jende horrekin konpartitzeak; lehen ere poza ematen zidan hainbeste ezagutzen ez nituenekin abesteak, eta esperientzia hori betiko geratzen da, baina gertuko jendearekin elkarbanatu ahal izateak beste zerbait dauka.

Zu ere oso gazte sartu zinen finalera 2013an. Zein aholku emango zenieke orain sartu diren horiei?

Uste dut oso diferentea dela nola iritsi nintzen ni eta nola iritsi diren haiek. Nik finalera iristea lortu nuen, eta horrekin konformatu nintzen. Final ona egitera joan nintzen, noski, baina helburua beteta nuen eta gozatzeko eguna izan zen. Iruditzen zait aurten finala parekatuago dagoela. 2013an nik ez nuen aukera erreal bezala ikusten ni buruz burukora iristea, baina aurtengoan hori ere irekita ikusten dut. Finalista berri bat sartu daiteke buruz burukora, edo txapelaren borrokan ibili, eta alderantziz, azkena ere geratu daiteke. Oso irekia dago finala, eta esango nieke hortzak zorrozituta joateko.

Zortzikoa nola ikusten duzu?

Oso talde naturala gelditu da, edozein saiotan topatzen den talde bat. Uste dut bertsoak oso diferenteak daudela finalean bertan. Belaunaldiei dago kienez ere, aurreko finalak bai zentratu dira belaunaldi zehatzago batean, eta aurten belaunaldi diferente gehiago daude, Maialen eta Aitor, Amets eta Sustrai, Alaia eta biok, Nerea eta Joanes... Badira hiruzpalau belaunaldi, eta, alde horretatik, ikusteko ere final polita izango da. Beteranoekin abestea luxu bat da, aldiro ikasten delako zerbait. Maialen 1997tik dago finalean; 25 urte dira. Aitor eta Sustrai 2001etik. Bertsolaritza-ren 20 urteko historia dago izen horien atzean, eta izugarria da haiekin abestea.

Zuk gertuago daukazu final haundi bateko sentsazioa, 2019an irabazi egin zenuen Gipuzkoakoa. Lagungarria da?

Ez dakit. Niretzat bi mundu desberdin dira Gipuzkoakoa eta Euskal Herrikoa. Nik Durango-ko saioaren ondoren jasotako zorian mezuak ez nituen jaso

Gipuzkoako txapela irabazi nuen. Ikusmin haundiagoa sortzen du, eta hori gestionatzea ezberdina izaten da. Txapelketa Nagusian mugitzen den publikoa, bertsolariak eta gaitegia aldatu egiten dira, eta ez dakit zenbateraino balio duen bateko esperientziak besterako.

Gipuzkoako txapela janzteak esan nahi du tentsio egoerak kudeatzeko gai zarela, baina txapelketa bakoitzak harrapatzen zaitu une zehatz batean, eta bat irabazteak ez du esan nahi uneoro ongi erantzungo duzunik. Finala aritzeak laguntzen du, batez ere, aurreko egunetan gorputzari neurria hartzeko.

Ohitu liteke bertsolari bat 13.000 pertsonaren aurrean abestera?

Hasierak ematen du bertigo haundia. Ez dakit aurten nola izango den, baina BECen pasillo luze batetik sartu izan gara beti, eta ez dut uste inor prest dagoenik horretarako. Oholtzara iristen zara erdi kolokan edo emozioek gaina hartuta. Hori onartu behar da, eta hala izango da berriz ere, hori ezin da ondo kudeatu. Baina, hortik aurrera, bertsoan egitera joaten gara, eta nahiz eta 13.000 lagun eduki aurrean, momentu batek aurrera bertsoak hartzen du erdigunea. Eserita zaudenean bai konturatzen zarela haunditasunaz, baina kantari ari zaren momentuan ahaztu egiten zara horrekin guztiarekin.

Esaldi labur batean, zein asmorekin zoaz finalera?

Koska egitera noa.

Zer du txapeketak gozotik eta zer gazitik?

Mugimendu gisa sortzen duen astinaldi hori oso gozoa da. Datorren urtean bertso eskolatan jende askok emango du izena eta saio asko antolatuko dira. Positiboa da txapelketaren atzean zenbat bertsolari talde sortzen diren txapelketa prestatzeko, elkar babesteko, edo astez aste bildu eta bertsoan aritzeko. Uste dut hori oso polita dela. Urtaro bakarrean bakoitzak zenbat aurreratzen duen ikustea ere ederra da.

Garratzetik duena da esposizioak berak dakarrena. Zaila da kudeatzeko, ez daukagu babesik, sare sozialetan edozer esan daiteke, bapateko jardun batean gabiltza, eta ia biluzik irteten gara oholtzara. Garratzetik hori dauka, eskaparatean geratzen garela.

Baina alde positiboak irabazten dio besteari.

Finala eta gero, zer?

Abendu bukaeran oporrak hartuko ditut, eta urtariletik aurrera ikusiko dugu. **k**



Ariketa bakoitza aprobeztatu nahi du añorgarrak, altxaldi guztiak baliatuz.

Txukun eta fin aritu dira bailarako bertsolariak, maila oso altuko txapelketan

Puntuak puntu, maila bikaina erakutsi eta ale ederrak utzi dituzte bailarako bertsolariek Txapelketa Nagusian. Finalean abestuko duten ordezkariez gain, finalaurrekoetako bigarren itzuliraino iristea lortu dute hiruk: Unai Agirrek, Agin Laburuk eta Eñaut Martikorenak.

URUMEA BERTSOLARITZA

Fin aritu dira, aurtengoan ere, Urumea bailarako bertsolariak. Lau ordezkari izango ditu bailarak final haundian, baina gaitzakoek ere ale ederrak utzi dituzte hilabete hauetan zehar. Azkenurreko fasera iristea lortu dutenak Agin Laburu astigartarra eta Unai Agirre eta Eñaut Martikorena hernaniarrak izan dira.

Laburuk txapelketa hasi zen egunean, irailaren 24ean, hasi zuen ibilbidea. Bere asmoa txapelketan zehar, pixkanaka, hobetzen joatea zen, fresko eta maila txukunean iristeko azken fasera. Kiniela askotan agertzen zen Labururen ize-na finaleko hautagaietako baten forman, eta, lortu ez duen arren, txukun aritu da. Gogoan geratuko da Elizondon, Joanes Illarregirekin batera, puntuak osatutako saioa. Hauxe izan zuten gaia: «Foruzainak zarete. Zuen txanda amaitzeko denbora egiten ari zarete autoa behar ez den lekuan utzita. Beste polizia auto bat gerturatzen ari zaizue. Nagusiarena da». Astigartarrak erakutsi zuen maisua dela puntukako ariketan, «Alperra izatea ez da gure kulpaa», «Baino bera ere hola egoten da sarri» eta

«Lasai, nagusia da, ez da zure ama» gisako irtenaldiekin.

Martikorenaren ibilbidea ere lehen fasean hasi zen, Donostian. Hasieratik erakutsi zuen bertsokera berezia duen bertsolaria dela, eta lilura sortu zuen Victoria Eugeniako bertsozaleen artean. Txinpartak atera zizkion ganbarako gaiari, eta bertso bikain bat osatu zuen hamarrek txikian, ligatzeko bilobari laguntza eskatzen ari den aitonaren larrutik: «Ez hor ikusiko nau osoik familiak; nik ezkutuan bildu nahi ditut liliak; bukaera izan dezan nere bigiliak; berriz ere sentitu nik kili-kiliak; hemen guztitakuak baitira filiak». Txapelketa osoan zehar erakutsi du erregistro eta ikuspuntu askotatik kantatzeko gaitasuna duela, eta finalaurrekoetako bigarren itzulira iritsi da bere lehen partehartzean.

Unai Agirrek ibilbide laburragoa izan du txapelketan. Aurreko edizioako finalista izanik, Elizondon sartu zen txapelketan, finalaurrekoetan. 652 puntu lortu zituen lehenengo saio hartan, eta aukera gutxiarekin joan zen Baionara, bigarren itzuliko saiora. Agirrek berak aitortu zuen hasierako agurrean: «Saioaren ederrak behar dun gestutik; arrasti on Baiona



Erregistro eta ikuspuntu askotatik kantatzeko gaitasuna duela erakutsi du Eñaut Martikorenak, txapelketan zehar.

jarrera prestutik; nahiz ta nekez pasatu enbutu estutik; bai serioyotik edo sake errestutik; gozatuko al degu elkarren eskutik». Ez zuen enbututik pasatzea lortu, baina majo gozatzeko hamaika motibo eman zizkion Baionako bertsozaleari.

Aurreko faseetan ere maila bikaina, bailara inguruko bertsolariek

Finalaurrekoetako lehen itzulian bukatu zen txapelketa Nerea Elustondorentzat. Puntuazio

altua lortu zuen lehenengo fasean, Getxon: 695 puntu eskuratuta pasa zen finalaurrekoetara. Bigarren saioan Donibane-Garazin kantatzea egokitu zitzaion, eta, hirugarren postuan amaitu zuen arren, puntuaketa bajua (628) geratu zitzaion.

Saio berean abestu zuen Asier Azpiroz zubietarrak ere. Lizarrako saioak balio izan zion bere lehenengo Txapelketa Nagusian aurrera egiteko; baina finalaurrekoetako lehenengo itzulitik ezin izan zuen pasa. Bertso txu-

kunak izenpetu zituen.

Azkenik, Unai Gaztelumendik ez zuen lortu lehen fasean aurrera egitea. Lizarran kantatu zuen, Azpirozekin batera, lehenengo faseko azken saioan.

Maila haundiko txapelketa osatu dute bailarako bertsolari guztiek, eta hemendik bi urtera izango dute Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan lehiatzeko aukera. Ordura arte, final haundiaz gozatzea eta plazaz plazako jardunarekin jarraitzea besterik ez zaie geratzen. **k**



Asier Azpiroz (kantuan) eta Nere Elustondo (atzean erdian), finalaurrekoetara sailkatu ziren.



Ale ederrak utzi dituzte Unai Agirrek eta Agin Laburuk, txapelketa honetan ere.